

ZABALDU LAGUNTZEN PROGRAMA 2020

ETE-EN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEKO LAGUNTZA

HELBURUA: Nazioartekotze-maila handirik ez duten enpresei atzerrian duten presentzia handitzen laguntzea eta garapen jasagarria sustatzea nazioartekotze-prozesu osoan.

ONURADUNAK:

Izaera soziala edo instalazio produktiboa EAEn duten mikroenpresak eta enpresa txikiak eta ertainak (ETE), beti ere, indarrean dagoen deialdia baino lehenago eratuak:

- Enpresa horien esportazioak ez du bere orotarako fakturazioaren %50 gaituko 2019 urtean.
- Onuradun izateko baldintzak diru laguntzaren indarraldi osoan iraun beharko du.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK:

Gastu hautagarriak:

- Laguntza jaso dezakete 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean burututako ekintzak.
- Gutxienez, honako akzioetatik 2 mota desberdin egitea sustatzen du Zabaldur programak:
 - Nazioartekotze estrategia lantzea.
 - Jabetza industrialari lotutako gastuak eta homologazioak: patente eta marken erregistroa, batetik, eta homologazioa eta ziurtapena, bestetik.
 - Azokei lotutako gastuak: azoketan parte hartzea, espazioaren alokairua, stand-aren dekorazioa eta azoka bakoitzeko bidaiak poltsa bat; biltzarretan, foro espezializatuetan eta azoketan parte hartzea bisitari gisa.
 - Bidaiak: Prospekzio bidaliak, merkatuak aztertze eta/edo bezero potentzialak diren enprekin kontaktatzeko eta/edo azokak bisitatzeko eta/edo biltzarretan edo foro espezializatuetan parte hartzeko.
 - Sustapen gastuak: hedapen eta sustapen materiala helmuga herrialdera egokitzea, publizitatea, sustapen-ekintzak, harreman publikoak eta sustapenerako edo ikerketarako beste ekintza batzuk.
 - enpresaren helmuga-herrialdeko inpaktua aztertze jasagarritasun txostenak, kontuan izanik Agenda 2030 planaren garapen jasagarriko helburuak.
 - Eskaera egin den ekitaldian eraturako atzerriko ezarpen produktibo eta komertzialekin lotutako gastuak
 - Talentua: atzerriko langileen hautaketa-prozesuarekin lotutako gastuak.
 - Sustapenerako edo ikerketarako ekintzak eta identifikatutako merkatuetan sartzeko beharrezkoak diren azterketak hirugarrenei kontratatze gastuak, baldin eta Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotzeko Euskal Agentziak) berariaz eta idatziz uko egin badio zerbitzua emateari.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Onartutako gastuaren zenbatekoaren %50raino iritsi daitezke laguntzak, eta gehienez 45.000€ izango dira eskaera bakoitzeko.

Gehienez 9 bidaiia-poltsa eskatu ahal izango dira eskatzaile bakoitzeko. Atzerriko azoketan parte hartzen bada stand batekin eta produktuak aurkezten badira stand horretan edo bisitari bezala parte hartzen bada kongresu eta foro espezializatuetan, bidaiia-poltsa bat baino ezingo da eskatu, zeina ez baita zenbatuko aurreko paragrafoan aipatutako mugaren barruan.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Bide elektronikoz tramitazioari buruzko xehetasunak, baita eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta erabili behar diren gainerako ereduak ere Interneteko www.spri.eus/zabaldu helbidean beteko dira.

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 12an hasiko da; eta **2020ko urriaren 30n** bukatuko da, eguerdiko 15:00etan.